



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2009-11-25**

VIIURTEA 1.836.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Mikel Ayestaran, Irati Mujika eta Haritz Lopez atxilotu ditu Poliziak

TOLOSALDEA Villabonan, Amezketan eta Tolosan, Segi gazte erakundearekin lotura dutelakoan atxilotu dituzte

OPERAZIOA Orotara 34 lagun atxilotu zituzten atzo Hego Euskal Herrian; gazteak inkomunikaturik daude 7



Batzar informatiboak eta manifestazioak egin zituzten; irudian, Tolosakoa. EE



Nesken graffiti tailerra egin zuten atzo iluntzean Tolosako Abastos eraikinean; gaur ere izango da ekitaldirik. I.TERRADILLOS

Loatzo Festa «arrakastatsua» Xexili egunean

VILLABONA Loatzo Musika eskolako arduradunek parte hartu zuten guztiei eskerrak eman dizkiete 4

ERASO SEXISTEN AURKAKO ALDARRIAK

TOLOSALDEA-LEITZALDEA Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Eguna da gaur eta gurean hainbat ekintzen bitartez gogoratuko da 2-3



HITZAK bi sarrerera ditu

LAGUN ARO GBC CLUB BALONCESTO VALLADOLID
saskibalo partidarako

Azaroak 29º Igandea • 18:00etan
Donostiako Ilunben



sarrerak

HITZAK 4 sarrerera pare ditu

INFO 7 irratiaren aldeko dantza emanaldia

Azaroak 28º Larunbata • 22:30ean
Villabonako Olaederran

TXOKOA hitza

sarrerak eskuratzeko deitu 943-65 56 95 telefono zenbakira



INDARKERIA SEXISTAREKIN AMAITZEKO

Pasa den ostiralean Eric Pescadorrek hitzaldia eman zuen Villabonan Hutsunea Betez elkarreak antolatuta. Harrera ona izan zuen ekimenak. I. GARCIA

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Eguna » Tolosaldean eta Leitzaldean hainbat ekitaldi antolatu dituzte egunaren harira.

INIGO TERRADILLOS

Ez da ospakizunetarako eguna gaurkoa. Aitzitik, agendan gaurkoa bezalako egunik izango ez bagenu, orduan ginatke ospakizunerako, emakumeen eta gizonen arteko bereizketarik ez dela egiten adieraziko bailuke. Ez da hori, ordea, tamalez egun dugun errealitatea, eta gaurkoa, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Eguna gogoratzen jarraitu behar dugu. Mundu osoan, gaurko egunaren harira, ekitaldiak egingo dituzte, Tolosaldean nahiz Leitzaldean bezala, herritarrak sensibilizatzeko helburuarekin, gai honen inguruan mutu gera ez daitez.

Duela 28 urte

1981eko uztailean Bogotan egin zen Latinoamerikako lehenengo topaketa feministan aukeratu zen azaroaren 25a Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna.

Topaketa hartan, emakumeek gizarteko eremu guztietan genero indarkeria, etxeko tratatu txarrak eta hilketak, bortxaketak, sexu jazarpena eta indarkeria oro har jasan behar izaten zituztela salatu zen, baita emakumezko preso politikoen tortura eta abusuak pairatzen zituztela ere. Egun hori Mirabal ahizpak gogoratzeko aukeratu zen, 1960an Dominikar Errepublikan

kan Trujillo diktadorearen polizia sekretuaren eskutan hildako hiru aktibista. 1999. urtean, Nazio Batuen Erakundeak (NBE) data hau ofizial bihurtu zuen.

Askotariko ekintzak

Hainbat eta hainbat mezu helaraziko zaizkie herritarrei gaurko egunaren harira antolaturiko ekitaldien bidez. Izan ere, horixe da helburuetako bat, emakumeen aurkako indarkeria present dagoela azaltzea.

Anoetan, Edurne Agirrezabalaren *Gezurrezko printzea* antzezlanaz izango da etzi ikusgai udaletxeko areto nagusian. Bakarrizketa bat da. Horren bidez, senarraren bizitzaren mende dagoen emakume batek bikote-bizitzan izandako bizipenak kontatzen ditu, elkarren arteko kimika sortu zen harremanaren hastapenetan hasi eta tratu

txarren mugara iritsi diren unera arte.

Irurran, berriz, elkarretaratzea egingo dute gaur eguerdian indarkeria sexista salatzeke. Leitzan, Udaleko Gizarte Zerbitzuek bul-tzatuta Estereotipoak hautsi izeneko tailerra egin zuten atzo, eta gaur Bilgune Feministak deituta elkarretaratzea egingo dute iluntzean *Erasoei ofentsiba, ekin autodefentsari!* lelopean.

» EKITALDIAK

GAUR

Irura

■ **12:00.** Udalak deituta, elkarretaratzea egingo dute udaletxearen aurrean.

Leitza

■ **20:00.** Leitzaldeko Bilgune Feministak deituta, elkarretaratzea egingo dute Kale Nagusian, *Erasoei ofentsiba, ekin autodefentsari!* lelopean.

Tolosa

■ Puntu lilak banatu ditu Udaleko Berdintasun Sailak herriko komertzioen bidez, eta gaur eta aste osoan paretetan, atean eta leku orotan zintzilikatzen gonbidatzen dituzte herritarrak.

■ **19:30.** *Erasoei ofentsiba, ekin autodefentsari!* lelopean elkarretaratzea egingo dute, Triangulo plazan, Tolosaldeko Bilgune Feministak deituta.

Tolosan ere hainbat ekintza antolatu dituzte gaurko egunaren inguruan. Udaleko Berdintasun Sailak Berdintasunaren kanpainarekin bat egin du. Aurten neska gazteei zuzendua izan da bereziki, datuen arabera, geroz eta indarkeria kasu gehiago jasaten baitituzte. Hala, atzo nesken graffiti tailerra egin zuten Abastos eraikinean, eta herenegun eta atzo komertzioetan banatzen egon ziren puntu lilak

Villabona

■ **19:15.** *Maitasun Haziak: kontak-tua maitasunaren erakusgarri.* Carmen Ferro Villabonako osasun zentroko emaginak zuzenduta, udaletxeko gela balioanitzean.

■ **20:00.** Elkarretaratzea eta ezusteko ekintza. Bi ekintzak Hutsunea Betez elkarreak antolatu ditu, Villabonako Udalaren laguntzarekin.

AZAROAK 27, ETZI

Anoeta

■ **22:00.** *Gezurrezko printzea* Cantzezlanaz, udaletxeko areto nagusian.

ABENDUAN

Tolosa

■ Txapa tailerra. Eguna eta ordua Tuenti bidez zehaztuko da. Norberak proposatuko du hobekien noiz etortzen zaion. Udaleko Berdintasun Sailak antolatuta.

Irurako  udala

Biolentzia generikoaren aurka

Mikel goi aingeru plaza, 1 943 69 13 33

herritarren artean. Udalak herritar-
rak animatu nahi ditu «leihenotan,
paretatan, ateetan eta nahi den
leku guztietan zintzilikatzea, me-
zua ahalik eta gehien zabaltzeko».
Abenduan, bestalde, txapa tailerra
egingo dute. Parte hartu nahi dute-
nek Tuenti (Trianguloan Berdin
Berdin) edota Facebook (Tolosa
Berdintasuna) bidez jarri beharko
dute noiz datorkien hobetoen, eta
ondoren, proposamen guztiak
jaso eta gero, bertan jakingo dute

Berdinsarearen kanpaina gazteei zuzendua izan da, geroz eta indarkeria kasu gehiago baitaude

azkenean noiz egingo den. Bestalde,
Tolosaldeko Bilgune Feminis-
tak deituta, gaur iluntzean elkarre-
taratzea egingo dute Trianguloan,
Erasoei ofentsiba, ekin autodefens-
tsari! lelopean.

Villabonan, azkenik, *Indarke-
riaren aurka maitasunez borrokatu*
lelopean antolatu ditu ekitaldiak
Hutsunea Betez elkarteak Udala-
ren laguntzarekin. Lehen ekitaldia
iragan ostiralean izan zuten, Eric
Pescador soziologo eta sexologoak
eman zuten hitzaldia, hain zuzen.
Harrera oso ona izan zuten, jende
ugari izan baitzen bertan, baina,
batez ere gizonekoei zuzenduta
egon arren, emakumezkoak izan
ziren nagusi. Gaur arratsalderako
ere antolatu dituzte ekitaldiak; ba-
tetik Carmen Ferrok Maitasun hit-
zak: kontakutua, maitasunaren
erakusgarri proiektzioa aurkeztu-
ko du, eta ondoren elkarretaratzea
egingo dute.

Bilgune Feministak autodefentsarako deia

Tolosaldeko eta Leitzaldeko Bil-
gune Feministatik adierazi dute-
nez, emakumeen aurkako indar-
keriak ez du etenik; «Euskal Her-
riari zazpi emakume erail dituzte,
eta beste ehunka eraso izan dira;
horregatik, datu hauek kaleratze-
az nekatuta gaudelako, autodefens-
tsarako deia egiten dugu». Erasoei
aurre egingez erantzun nahi diete
Bilgune Feministakoei.

Euren ustez, autodefentsak
«emakumeengan jarrera aldaketa
suposatzen du». Baina, defentsa
personalerako teknikez haratago
doala diote. «Indarkeria erroetara
jo eta berarekin amaitzeko behar-
rezko tresna multzoa da autode-
fentsa feminista. Emakumeon ar-
teko harremanak eta elkartasuna-
ren garapena da autodefentsa,
horretarako, antolakuntza behar-
rezkoa izanik. Modu honetara bi-
zipenak, beldurrak nahiz aurre
egiteko estrategiak taldean kon-
partitzeko aukera ere ematen
digu». Halaber, Bilgune Feminis-
taren usteetan, indarkeria sexista
kasuak jendaurrean agertzea
«ezinbestekoa» da. «Publikoki sa-
latu behar dugu, erasoaren aurrean
irtenbideak sortuz».

Bestalde, erasoaren aurrean era-
kondeak eman duten erantzuna
salatzen dute; «Indarkeria sexista-

ren muinera jotzen ez duten azale-
ko neurri eta legeak hartzen dituz-
te, baina prebentzio neurriak
ahazten dituzte. Bideratutako pro-
posamenak edota legeak behin
erasoa gertatu ondorenera bidera-
tuta daude eta emakumeon inde-
pendentzia ekonomikoa eta psiko-
logikoa ez dute bermatzen».

Indarkeriari aurre egiteko tres-
na prebentzioa dela diote, haurrei
txikitatit indarkeria sexistaren in-
guruan irakatsiz. Hala, herritarrek
deitzen dituzte gaurko mobiliza-
zioetan parte hartzera.

«Egituraketa errotik aldatu»

Tolosako ezker abertzaleak bio-
lentzia matxistaren aurka lanean
jarraitzeko konpromisoa hartzen
duela adierazi du, «gure udale-
rrian ere irauten duen gaitza baita,
eta areagotzen ari da, gainera». In-
darkeriari aurre egiteko, egungo
harreman eredu eta jendartearen
egituraketa errotik eraldatu behar
dela diote, «emakumeok eskubi-
dedun subjektu osotzat hartuz».

Politika feminista integrala al-
darrikatzen dute eta norabide ho-
rretan urrats praktikokoak ematen
jarraitzeko konpromisoa berretsi.
Halaber, ezker abertzaleak argi
utzi nahi du barne mailan ere, ez
duela jarrera sexistarik onartuko,
eta hauek ekidin eta balizko eraso-
en aurrean hartu beharreko neu-
rrirei helduko diela.

Ezker abertzalearen ustez, era-
kundeetatik eginiko lana «partzia-
la» da. eta «emakumeon aurkako
indarkeriarekin amaitzeko behar-
rezkoa da benetako konpromiso
politikoa, politika integralak behar
dira». Gizarte osoaren inplikazioa
ere beharrezkotzat jotzen dute,
«guztiaz ardura baita indarkeria
adierazpen ororekin amaitzea». Honengatik guztiagatik mugim-
endu feministak antolaturiko
kintzekin bat egiten dutela diote,
herritarrek ere parte hartzera ani-
matuz.

Tolosa» Udalak programak garatuko ditu jarrera sexistaren prebentzioa lantzeko, eta jarrera aktiboa hartzeko.

ERREDAKZIOIA

Tolosako udaletxean atzo egin zen
Osoko Bilkuran Emakumeenga-
nako Indarkeriaren Aurkako Egu-
naren harira aurkezturiko mozioa
onartu zen. Ondorioz, Tolosako
Udalak «berdintasuna bultzatze-
ko politika integrala eta aktiboa
egiten jarraitzeko konpromisoa»
hartzen du.

Berdintasun Sailak aurtengo
kanpainen eta egungo egoera-
ren berri eman zuten atzoko bilku-
ran, mozioa aurkeztetakoan. Jen-
de gaztearengana jo nahi izan
dute, eta «Tolosan indarkeria sex-
ista jasaten duten neska gazteen-

«Haurrengan afektibitatea lantzeak gerora ondorio zuzena izaten du»

CARMEN FERRO » Emagina

**Villabona» Afektibitatea
lantzearen garrantzia
ariko da gaur, 19:15etik
aurrera, udaletxeko
areto nagusian.**

I. TERRADILLOS

Hutsunea Betez elkarteak antola-
tuta, *Maitasun Haziak: kontakutua,
maitasunaren erakusgarri* proiekt-
zioa emango du Carmen Ferro
emaginak gaur, 19:15ean, udale-
txeko gela balioaniztean. «Afekti-
bitatearen garrantzia» nabarmen-
duko du.

Zer da gaurko proiektzioan azal- duko duzuna?

Biolentziaren kontrakoaz ariko
naiz, hau da, afektibitateaz, samur-
tasunaz, maitasunaz... Hastapene-
tik aldatzeko dagoen aukeraz ari-
ko naiz. Izan ere, eraiten duzuna-
ren fruituak jasoko dituzu gero.
Beraz, hasiera hasieratik afektibi-
tatea lantzeak duen garrantzia az-
pimarratuko dut.

Zure ustez, nola lantzen da afekti- bitatea?

Esaterako, haurren masajearena
dago. Horrelako ikastaroetan-eta,
aita askok parte hartzen dute, eta
proiektzioan hori erakutsi nahi du.
Sentsibiltate handia ikusten da
bertan. Izan ere, bikoteek umea
izaten dutenean oso une sentibe-
ran daude, une errepikaezinean.
Masajeak bezalakoak lantzeak
onura handiak ekartzen ditu gero-
ra. Adibidez, edoskitzea luzatzen
du, eta horrek berarekin amaren-
ganako lotura handitzea dakar.
Guztia lotuta dago. Gauza hauek



N. LATASURU

guztiak kontuan hartu behar dira,
esan bezala, ondorioak zuzenak
baitira.

Indarkeriarekin ba al du erlazio- rik?

Bai. Indarkeriari aurre egiteko
modu asko daude. Horietako bat
agresibitatea erasotzea litzateke,
baina, nik afektibitatea bultzatze-
rena lantzen dut. Eta, esan bezala,
hori txikitatit lantzeak esanahi
handia du.

Egungo gizartea nola ikusten duzu?

Gizarte oso zakar eta bortitzean
bizi gara, eta hori landu egin behar
dugu. Batez ere, hiru urtetik aurre-
rako haurretan lan egiteak duen
garrantzia ariko nahiz gaurko
saioan. Nik, egia esan, gaur egungo
gurasoak ikusten ditut gauzak al-
datu nahian, bortizkeria eta estres
honetatik alden du nahian. Baina,
lan handia egin beharra dago.

Gazteen eta nerabeen egoerari arreta berezia

gan zentratu». *Beldur Barik* da aur-
ten Berdinsareatik erabilitako le-
loa, Udaleko Berdintasun Sailak
ere bere egin duena. «Gazteak, be-
rez, ez dira beldur, baina beldurra
izaten ikasten dute, eta horregatik,
baliabideak eman behar dizkiegu
eta ahal bihurtuz dituzten ezau-
garriak identifikatzen irakatsi»,
azladu zuen Josebe Iturrioz Ber-
dintasun teknikariak.

Prebentzioa landu

Indarkeriaren prebentzioa lantze-
aren garrantzia azpimarratu dute,
«indarkeria fisikoaz gain, indarke-
ria sinbolikoa ere kontuan hartuz;
ez da ikusten, baina horren bidez
beldurra sortzen da emakumeen-
gan».

Berdintasun teknikariak adiera-
zitakoaren arabera, «bai Tolosan,
bai gainerakoetan, ukatu ezin du-
gu errealtate bat dago: Zenbat
neska gaztek egin dute korrika edo

aldatu dira espaloiz, atzetik pauso-
ak entzun eta beldurra sentitu du-
telako? Zenbat aldi irten behar
izan dute eremu publiko batetik,
zer erantzun jakin gabe geratu di-
relako, edo aurrean zeukaten mu-
tilaren erreakzioaren beldur izan
direlako? Askotan, gehiegitan, uz-
ten diete neska nerabeek gauzak
egiteari, zinemara, hondartzara,
mendira, oporretan joateari... gau-
za horiek bakarrik egitearen bel-
dur direlako».

Hala, Josebe Iturrioz ustez,
ezin da beste alde batera begiratu.
«Gazteei baliabideak eman behar
dizkiegu, jarrerak eta ekintzak
ezagutu, antzeman eta aldatu ahal
izan ditzaten. Izan ere, indarkeria-
ren biktima asko izan dira dagoen-
eko. Tolosako Udalak konpromi-
soak hartu ditu, eta ondorioz, nes-
ka gazteen ahultasunari aurre
egiteko baliabideak emateko pro-
gramak garatuko ditu, boterea

hartu dezaten errazteko; eta mutil
gazteekin ere lan egingo du, jarrera
sexisten prebentziarako eta eraso-
en aurrean jarrera aktiboa hartu
dezaten animatzeko».

Udalaren konpromisoa

Hala, atzo onartutako mozioaren
ondorioz, Tolosako Udalak ber-
dintasunaren alde eta emakume-
enganako indarkeriaren kontra
«bere eskumenen atalean eta indar-
reko legea aplikatuz, udal politika
aktiboa, integrala eta koordinatua
garatzen jarraitzeko konpromi-
soa» hartzen du. Halaber, Tolosa-
ko Udalak nerabeen eta gazteen-
ganako indarkeriari, arreta berezia
jarriko diola adierazten du, ekime-
nak sustatuz.

Bestalde, gonbidapena luzatzen
diote herritarrei, «bereiziki herriko
neska eta mutil gazteei», gaurko
deituta dauden ekitaldietan parte
har dezaten.



Besteak beste, pandero eta trikiti doinuak izan ziren Villabonako kaleetan. 'AIURRI' ALDIZKARIA

Xexili egunez ospatutako Loatzo Festa «arrakastatsua» izan da

Villabona » 8 herrietako ikasle eta ikasle ohiek musikaz animatu zituzten kaleak; ekintza ugari izan zituzten bertaratutakoek.

ENERITZ MAIZ

Igandean, Xexili eguna zela eta Loatzo Festa ospatu zuten Villabonan lehen aldiz. Loatzo Musika eskola 8 herri osatzen dute eta bertan parte hartu zuten Villabona, Anoeta, Irurra, Zizurkil, Altzo, Aduna, Ibarra eta Alegiako guraso, ikasle eta ikasle ohiek ere. Nola ez, irakasleak ere bertan ibili ziren buru belarri dena ongi atera zedin.

Orain artean, Xexili eguna, hau da, musikarien eguna, kalejira batekin ospatzen zuten baina aurtengorako formatua aldatu eta egun osoko egitaraua prestatu zuten.



Adin ezberdinetako jendea kalejiran musika joz. 'AIURRI' ALDIZKARIA

Adin ezberdinetako musikariek, gurasoek, lagunek... musika, dantza, bazkaria... denetik izan zuten Villabonako herria zehar sakabaturik.

Loatzo Musika Eskolak, jada egin du festa handi honen balorazioa eta Miren Mujika zuzendariak hauxe azaldu digu: «Oso gustura gaudela adierazi nahi diegu guraso, ikasle eta orohar herritar guztiei».

Errepikatzeko moduan

Esan bezala, lehen urtea izan da aurtengoa egun osoko festa bat antolatu dutena. Eguraldia lagun izan zuten eta «jendearen partehartze handia eskertu nahi dugu. Zortzi herrietako guraso eta udal langileak, eta nola ez, ikasle eta ikasle ohi guztien aldetik jasotako laguntza eta gogo» azpimarratu nahi izan ditu. Era berean garbi dauka «honetako gertatzen den moduan, akatsak ere izaten dira eta horren aurrean barkamena eskatzea besterik ez zaigu geratzen, zaila baita honelako jai batean inolako huts egiterik ez egitea».

Lan asko egin behar izan dute guztia lotu eta antolatzen baina hala ere «aurreko hilabete eta egunetan egindako lanak merezi izan duenaren sentsazioa dugu eta orokorrean jendeak egunaz disfrutatzea zela ere bai. Hala ere, guraso guztiei zabalduko diegun galdeketa batean iritziak jasotzeko asmoa dugu», gaineratzen du.

Laotzo Musika osatzen duten kideak gustura daude lortutako emaitzarekin baina «ziur hobetu daitekeela eta ea denon artean lortzen dugun. Eskerrik asko bihotzez, lagundu diguzuen guztioi», bukatu nahi izan du Miren Mujika Loatzo Musika Eskolako zuzendariak.

Ostegunerako herritar guztiei zuzendutako Herri Batzarrera deitu du Udalak

Irura » Autoak plazan, haurren zaintza, tasa eta zergak, txakur kakak eta etxebizitza tasatuak izango dira jorrazteko gaiak.

E. MAIZ

Irurako Udalak Herri Batzarran antolatu du azaroaren 26rako eta 19:30ean plazako ikastolako erdiko aretoan elkartuko dira.

Bertan ukituko diren gaiak honako hauek izango dira: Lehenengo gaia, San Migel plaza autoentzako itxia izango da. Jarraian, zakarrak eta txakur kakak izango dira eztabaida gai. Hurrengo gaiak, herriko gurasoei zuzen-zuzenean ukitzen die, goizez ikastolara sartu aurretik izaten den haurren zaintzaren inguruan hitz egiteko aukera izango baita. Laugarren puntuan, tasak eta zergak izango dira eztabaidagai eta batzarrabukatzeko Etxebizitza tasatuak izango da mintzagai.

Herritar bakoitzaren ahotsak garrantzia duelako, Udaletik, herritar guztiei dei egiten diete, animatu eta parte hartzera.

Gaur egingo den Udal Ingurumen batzordearen aurkezpenarako deia herritarrei

Anoeta » Udalak 2008an sortu zuen auzolan taldeak 2010erako duen plangintzaren berri emango du.

E. MAIZ

Anoetako Udalak, gaur asteazkena, 19:30ean udaletzeko pleno aretoan ospatuko den aurkezpen bileran parte hartzera gonbidatu nahi ditu herritar guztiak. Ondorengo urteei begira, Udalarri egitasmo hau herritarrekin batera mantendu eta indartzea gustatuko litzaiotke. Bertan 2010. urteko plangintzari buruz hitz egingo da.

Udal Ingurumen batzordea 2008an hasi zen auzolan talde bat sortu nahian eta baserritarrekin edukitako elkarriketen bidez beraien kezak, beharrak eta proposamenak jaso zituzten. 2009ko martxoan antolatu zen lehen auzolan ekimena eta guztira orain arte antolatutako egitasmoak bost izan dira. Auzolan taldea batez ere herri bideak konpondu eta txukuntzen aritu da, baina bestelako lanak ere egin ditu: erreka garbiketarik, ubide konponketarik...

Gorrotxategi PRODUKTUAK

Turroi sorta **29€**

Tolosako xaxuak
Txakolin txokolateta
Jagurti turroia masusta gorriarekin
Aktikoa eta mertxika turroia

Turroi askotarikoak **19,50€**

Mandarina turroia boiluzunarekin
Txokolata turroia alimendekin
Mertxika turroia txokolaterekin
Jagurti turroia masusta gorriarekin

EUSKAL HERRIKO PRODUKTUEKIN OSATUTAKO SASKIAK

Saskia **4€**

LUR-LAN

Osoa-irratilo anfi gaxta, 300g
Nafarroako gibeherrea, 15g
Basotxerri besoa, 300g
Etxeko karriño lodia 300g
Sagar dulzera, 300ml
Agiñako pipernak, 330ml
Cetariako hegaltzua, 170g
Zainoari zurrik, ekilogiaok, 347g

Kizabalo anfi gaxta, 290g
Fale gris bloka, 15g
Etxeko karriño lodia 330g
Basotxerri besoa, 300g
Miliore ezria, 300g
Agiñako pipernak, 330ml
Cetariako antroa, 100g
Cetariako hegaltzua, 170g
Pikillo ezria, 250g

Saskia **59€**

Erosi berriaren plazan

EUSKAL HERRIKO PRODUKTUAK

azaroaren 30a arte

943-30 43 45
www.berria.info
harpidetza@berria.info

saskia!

AUKERA EZAZU, BIZI ERUSKATZAZ **berria**

Bidalaketa gastuak doan



Asier Gallego pultsularia, saio batean. HITZA

Asier Gallegok lortu du Euskadiko Teknikako Kriteriumean garaipena

Halterofilia » Danena-Olaederrakoek igande honetan Kluben Arteko Espainiako Txapelketan parte hartuko dute.

ERREDAKZIOA

Euskadiko Teknika Kriteriumean eta Euskadiko Kadete Kriteriumean parte hartu berri dute Danena-Olaederra taldeko pultsulariek. Teknikakoan Asier Gallegok lehenengo postua lortu zuen. Kadete-koan, Adrian Sasiainek bigarren

postua, Iñaki Zubelzuk bosgarren postua, Asier Gallegok zortzigarren postua eta Alain Moledak bederatzigarren postua eskuratu zuten.

Igande honetan, hilak 29, Danena-Olaederrakoek Kluben Arteko Espainiako Txapelketan parte hartuko dute. Ondoko pultsulariak ariko dira: Francisco Gonzalez, Gorka Lopez, Ekaitz Kortajarena, Iker Hernandez, Jon Sasiain, Igor Sasiain, Paco Cruz, Teddy Martinez eta Javier Aranburu ordezeko bezala. Entrenatzaile bezala Batis Kortajarena ariko da.

Etziko bertso afarirako txartelak oraindik salgai

ERREDAKZIOA

Alegiako Zazpi Astoren Gainean bertso taldeak bertso afaria antolatu du Udazken Kulturalean baitan etzirako. Afariaren aurretik, 19:30ean bertso poteoa egingo dute Eider eta Maider trikitilariak launduta. Bai bertso poteoan eta

baita afarian ere Arkaitz Oiarzabal *Xamoa* eta Jokin Labaien bertso-lariak ariko dira.

Txartelak Ixkiñan eta Jubilatuen tabernan daude salgai eta 17 euro balio dute. Erosi nahi dituenak bihar du horretarako azken aukera.

Laburrak

Ohiko bilkura egingo du Udalbatzak bihar

AMEZKETA » Udalbatzak ohiko bilkura egingo du, bihar, 20:30ean, pleno aretoan. Bertan, besteak beste, ondorengo gaiak aztertuko dira: Amezketako Udaleko euskararen barne erabilera plana (2010-2012) onartzea; Amezketako udalerrian sortutako hondakinak ez erretzeko eskaria; EHNE-ren mozioa eta EHGA-ren mozioa.

Tolosa Kantarikoek entseguia egingo dute gaur

TOLOSA » Tolosa Kantarikoek entseguia egingo dute, gaur, 20:00etan, Musika Eskolako ikasgela batean. Izan ere, datorren larunbatean, hilak 28, hileko azkena, kantu-jira izango da Tolosako Alde Zaharreko kaleetan, eta hileko bezala, kantu-zaleek aukera polita izango dute euskal abesti batzuk kantatzeko. 12:00etan Ton-tokalen elkartuko dira.

Historia eta hizkuntz ondarea jasotzen ari dira



Bedaioko zenbait adineko bildu dituzte Nagusi etxean elkarrizketak egiteko. HITZA

Bedaio » Artubi elkarteak elkarlanean ari da 'ahotsak.com' egitasmoarekin proiektua aurrera eramateko.

ERREDAKZIOA

Bedaio kontu kontari historia eta berreskuratuz proiektua bultzatzen ari dira Artubi elkartetik. Bedaioko «historia eta hizkuntz ondarea ezagutu eta jasotzeko» helburuarekin sortu da proiektua eta aldi berean «ondorengoei transmititzeko tresna baliagarria izan da-

din» ari dira egiten bultzatzaileak. Lehenengo pausoa Bedaioko hainbat adineko Nagusi etxean elkarrizketak izan zen elkarrizketak egiteko. Ondorengo asteetan zehar elkarrizketa gehiago egingo dituzte.

Artubi elkartetik azaltzen dutenez, «gaur egungo bizimodu azkar honek gure arbasoek utzi diguten altxor kulturala ahaztea bultzatzen gaitu, ezjakintasunaren galdiaz gizarteko hainbat arloko bizipen, hizkuntza, gizarte antolakuntza, ohiturak, musika, dantzak, kirola eta abar luze bat». Horregatik, bedaiotarrek beraien «historia

apurra jaso nahi dute eta ahaztearen kutxatik ateratu».

Lan hori aurrera eramateko *ahotsak.com* egiten duen taldearekin elkarlanean. Bedaiotar nagusiak jarri dituzte mintzoan, «hauek baitira iraganaren lekuko izan direnak». Hainbat pasarte berrituaz, Bedaioaren historiari buruzko ikus-entzunezkoa egiten ari dira.

Ahotsak.com bultzatzen dutenen helburua herri hizkerak bildu eta hedatzea da. 1.589 audio, 2.038 ikus-entzunezko, beste hainbat pasarte, zinta eta transkripzio egin dituzte. Guztira 92 herritan eta 1.475 hizlarirekin egon dira.

Arabako Errioxara antolatu dute egun osoko irteera larunbaterako

Bedaio » Heredad de Ugarte eta Castillo de la Serna upategietara eta Guardiara joango dira bidaiko parte-hartzaileak.

ERREDAKZIOA

Larunbaterako Arabako Errioxara bidaia antolatu du Bedaioko Artubi elkarteak. Heredad Ugarte eta Castillo de la Serna upategiak bisitatuko dituzte irteeran. 08:45ean aterako da autobusa Bedaioko plaza-tik eta 09:00etan Alegiara iritsi-

ko da bertako jendea jasotzeko asmoz. Erdi bidean, geldialdi bat egingo dute 10:00ak inguruan gosari-hamaiketako egiteko asmoz.

Hamaiketakoaren ondoren Heredad Ugarte ardo upategira egingo dute bisita. Bertan ardoa nola egiten duten ikasteko aukera izango dute, izan ere oraintxe ari dira ardoa egite-prozesuan. Ondoren, ikustaldiarekin jarraituz, Guardia herrira egingo dute bisita eta jarrera Errioxako jaki ohikoenak datatzera joko dute Castillo de la Serna upategira. Upategi hau familia txiki eta xume batek kudea-

tzen du eta bertan ekoizten duten etxeko ardo eta janari dastatu ahal izango dute bisitariak. Janaz eta edanaz bapto egin ondoren arratsalde iluntze aldera etxera itzuli-ko dira.

Bidaia honetara joateko gogoan dutenek oraindik izena eman dezakete 666 618 558 zenbakira. Azken eguna etzi izango da. Dagoneko 27 lagunek eman dute izena eta antolatzaileek gogorazari dute Bedaioan antolatzen diren beste ekitaldi guztiak bezalaxe hau ere irekia dela eta edonork eman deza-keela izena.

Pirritx, Porrotx eta MariMotots

IRRIEN LAGUNAK CDa

16 €



Euskal pirata bihurriak gara; zatoz gurekin irriak abordatzera!

Noiz eta nola egin eskaria?

Azaroaren 30 arte:

• 902-82 02 01

• harpidetza@hitza.info

Bidaiketa gastuak daon



PIRATA DVDa

18 €

hitza

Adiskidetasunaren Txapelketa jokoan da jada

Tolosa » Ereite elkarteak antolatuta, joan den larunbatean jolastu ziren lehen lau partidak; asteburu honetan gehiago.

ERREDAKZIOA

Ereite elkarte kulturantzak antolatuta, Adiskidetasunaren Aretu-Futbol Txapelketa jokatu zen pasaden igandean. Hamabi taldek hartzen dute parte ekimenean, eta horietatik zortzik jokatu zuten joan den asteburuan.

Lehendabiziko partida Euskal Herria eta Senegalen artekoa izan zen. Bertan, etxekoak izan ziren garaile, 6-0ko emaitzarekin. Bigarrena berriz, Esperanza Latina eta Rais Euskadiren artekoa izan zen, hemen, bigarren taldeak irabazi zuen 4-5eko emaitzarekin. Hirugarrena, Kolore Guztiak eta Sahararen artekoa izan zen, eta hau izan zen arratsaldeko berdinketa



Euskal Herria eta Senegal taldeen arteko partida jokatu zen lehendabizi. HITZA

bakarra. 3-3an amaitu baitzuen markagailuak. Azkenik, 7-9an amaitu zen Ukraina eta Lita Arafu Mezkitan taldeen arteko norgehiagoka.

Asteburu honetan ligaxkakoa beste bi jardunaldi jokatu dira. Lehendabizikoa larunbatean, eta bigarrena, igandean. 17:30ean ha-

siko dira partidak, eta oraingoan ere, Uzturpe pilotalekuan izango dira. Hala ere, oraindik zehaztu gabe dago zeintzuk izango diren jokatu duenak, taldeetako bat txapelketatik kanpo geratu baita. Igandean berriz, 15:00etan hasiko dira Adiskidetasunaren Txapelketako norgehiagokak.

Larunbatean, Flemingo ikasleen eskutik, bigarren eskuko azoka

Villabona » Ikasturte honetan egingo duten txangoa finantzatzeko erabiliko dute goizean zehar biltzen duten dirua.

ERREDAKZIOA

Fleming ikastetxeko seigarren mailako ikasleek antolatuta, Villabonako Berdura Plazan bigarren eskuko azoka berezia izango da larunbatean. 11:00etatik 14:00etara bitartean egongo da zabalik. Ikasturte hasierako bileran sortu zen ideia. Familiak irakasleekin elkar-tu ziren, eta beste gai batzuen artean, urterot eginoz den irteeraz hitz egin zen. Proposatutako irteera baieztatua egon aren, hainbat familiarik ez zuten bideragarria ikus-



Fleming ikastetxeko seigarren mailakoek bultzatu dute ekimena. HITZA

ten. Bilera honetan proposatu zen, hain zuzen, ikasleek aztertzea hainbat finantziabide.

Irakaslegoak, prozesu osoan inplikaturik, proposamen desberdinak aztertzeke taldeak antolatu zituen. Familiekin batera guztia eztabaidatu ondoren, jostailuak,

liburuak, saltzeko azoka bat antolatzea erabaki zen, ikasleek beraien bihurtu zirelarik proiektuaren bultzatzaile, familia eta irakasleeren laguntzarekin.

Bertan ateratako dirua aurtengo irteeraren kostuari aurre egiteko erabiliko dute.



Elisabet Arrieta adituak jardunaldien aurkezpenean ere hartu zuen parte. E.M.

Elisabet Arrieta herri partaidetzan adituak hitzaldia emango du

Tolosa » Udalak abiatutako partaidetza jardunaldien lehendabiziko saioa izango da gaur; hitzaldia, 18:30ean egingo da udaletxean.

ditu baina hortik aurrera beste pausu batzuk eman nahi dituzte Tolosako araudi horren inguruan.

Ibilbide handiko aditu bat entzuteko aukera, gaur

Soziologian lizentziatua Madrilgo Complutense Unibertsitatean eta Soziologian doktoratua Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). Bere tesian herritarren parte-hartzea jorratu zuen. Donostiako Gizarte Langintzako Eskolako irakaslea izan da 1984tik 2000ra. Urte horretan, Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean irakasle sartu zen, eta gaur egun ikastegi horren dekanordea da.

Ikerkuntzari dagokionez, Euskal Herriko Unibertsitatearen /UPV/EHU) Parte Hartuz Ikerkuntza Taldearen partaidea da, eta baita Grundtvig (europar proiektu) ekipoarena ere. 2002tik 2007ko amaierara arte, Altxako Komunitate-garapenerako Planaren aholkularia izan da; halaber, herritarren parte-hartzeari lotutako zenbait proiektuen kolaboratzailea izan da Irunen eta Tolosan eta gaur egun Ordiziako proiektuetan eta Konpondu ekimenean esku hartzen du.

Txostengile gisa parte hartu du Batzar eta gradu-ondoko ikastaro batzuetan, eta gaiari lotutako dokumentazioa argitaratu du.

ERREDAKZIOA

Udalak martxan jarritako partaidetza jardunaldien lehen saioa izango da gaur arratsaldean. 18:30ean, Soziologian doktoratua EHUN eta herri partaidetzan aditua den Elisabet Arrieta izango da hizlari. Udaletxeko batzar aretoan izango da mintzaldia, eta bertan, berak parte hartu duen hainbat esperientziari buruz duen ikuspuntu agertuko du.

Jardunaldi hauen helburu nagusia, guztien formazioa da eta jardunaldi hauekin hiru ikuspegi ezberdin erakutsiko dira. Alde bate-tik, formazioa, baina abiapuntu amankomun batekin. Lehenengo formazioa teoriaren ingurukoa izango da eta oinarriko elementu batzuk ezagutu beharko dira denek abiapuntu berdina izan dezaten. Bigarren helburutzat, bai hemen eta bai beste toki batzuetan zer egiten den ikusi eta neurri batean baliogarriak izan daitezkeen erreferente edo klabeak eskuratzeko litzateke. Hirugarrena berriz edukia, esperientzia, informazioa, ausnarketarako bidea... izango

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



EHUNKA HERRITAR BILDU ZIREN VILLABONAN ATXILOTUEN ASKATASUNA ESKATZEKO. GAUR, 20:00ETAN, ELKARRETARATZE BERRI BAT EGINGO DUTE HERRIKO PLAZAN. A. IMAZ

Mikel Ayestaran, Irati Mujika eta Haritz Lopez inkomunikaturik

Politika » Tolosaldeko hiru gazteak Segi «berrosatzen» ari zirelakoan atxilotu ditu Guardia Zibilak eta Espainiako Poliziak.

ASIER IMAZ

Hego Euskal Herrian 34 gazte atxilotu zituen atzo Espainiako Poliziak eta Guardia Zibilak. Hauetatik hiru Tolosaldean: Irati Mujika, Amezketan; Mikel Ayestaran, Villabonan eta Haritz Lopez, Tolosan.

Atxilotuta agindua Fernando Grande Marlaskak eman zuen. Espainiako Auzitegi Nazionalako epailearen ustez, 34 euskal herritar hauek Segi «berrosatzen» ari ziren.

Gazte guztiak inkomunikaturik aurkitzen dira Madrilan.

Gaur, Batzar Informatiboak

Irati Mujikaren etxera, Amezketan, 01:00etan joan zen atzo Guardia Zibila. Ondoren, Villabonan, Mikel Ayestaranen etxean sartu

zen Espainiako Polizia, 01:50ean. Azkenik Tolosan, 02:00etan, Haritz Lopezen etxera sartu zen Polizia.

Atxilotuta hauek salatzen Bartzar Informatiboak eta elkarretaratzeak egin ziren atzo hiru gazte herrietan. Tolosan 130 lagun bildu ziren. Salaketek gaur ere jarraipena edukiko dute: Tolosan 20:00etan Triangulon, Villabonan 20:00etan Errebote plazan eta Amezketan 19:30ean plazan.

Erreakzioak

Ezker abertzaleak «kezka» agertu zuen, «indar polizialen eskuetan gazte hauek jasan dezaketan tratuaren inguruan». Horrekin batera «berehalako askatasuna» eskatu zuen.

Aralarren ustez «Batasunaren

barne prozesua oztopatu nahi dute» atxilotuta hauek.

Lokarrik «inkomunikazioarekin amaitzea» eta atxilotuek «defentsa egokia bermaturik edukitzea» eskatu zuen. Horretaz gain, akordioaren eta kontsultaren aldeko herritarren sareak, «bakariko bidea giza eskubideen eta oina-

rrizko askatasun demokratikoen errespetuan oinarriturik dagoela azaldu zuen, «ez ilegalizazioetan ezta euskal herritarren zati baten bazterketa politikoan».

Bestalde, Patxi Lopez Lehendakariaren iritziz, «bake eta askatasunaren bidean aurrerapausoak dira atxilotetak».



MIKEL AYESTARANEN ATEA BORRAZ IREKI ZUEN ESPAINIAKO POLIZIAK. A. IMAZ

» **ESKUALDEKOAK**



Haritz Lopez

Tolosa

Espainiako Polizia 02:00etan sartu zen Lopezen etxera. «Ordenagailuko disko gogorra» eraman zuten bertatik. Ondoren Intxurre eta Sanblazpiko Gazte Asanbladaren Otsabi Elkartera eraman zuten gaztea. Bi lokal hauetan Poliziak miaketak egin zituen.



Irati Mujika

Amezketan

Guardia Zibila, «4 edo 5 patroletan», 01:00etan joan zen Irati Mujikaren etxera. Bertan egon ziren 07:00ak arte. «Telefono mugikor guztiak eraman zituzten, etxea hankaz gora utzi. Azken asteetan Guardia Zibilaren presentzia handia egon da Amezketan».



Mikel Ayestaran

Villabona

Remi Ayestaran zingotzi zendua anaia da Mikel Ayestaran. Espainiako Poliziak «01:50ean borrarrekin bota zuen Mikelen etxeko atea. Zuzenean bere logelara joan ziren. Goitik behera miatu ondoren musika cd-ak, eskuko ordenagailua eta gutun pertsonalak eraman zituzten». 05:15ean eraman zuten Ayestaran etxetik.

E Erantzunak



www.tolosaldeko-hitza.info
webguneko erantzunak:

- «Aupa Mikel. Maita zaitugu, Villabona osoa gaur kalera aterako da, zuri eta zure sendi guztiari beste behin babesa adierazte- ra».
- «Aupa Mikel, Irati eta Haritz. Gaur eskualde osoa eta Euskal Herri osoa kalera! Utzi euskal gazteria bakean, utzi Tolosaldea bakean,

- utzi Euskal Herria bakean! Jo Ta Ke, irabazi arte!».
- «Mikel maita haugu! Eutsi goiari eta ez etsi! Zure lagun eta senio-ekin bat gaur Villabona eta eskualde guztia kalera aterako gara! Utzi Villabona bakean!».
- **Igor Liste.** «Epa: Madrildik operazio polizial bat egin ditek, orain eta beti gora Euskal Herria. Post-data: Hau al da baskoien demokrazia espainiarra!».

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Iragarki laburrak

LANA

■ **Konponketak.** Ordenagailuak konpondu, eguneratu eta zaharberritzen dira. Etxerako zerbitzua. Interesatuek deitu 633 30 64 56 zenbakira.

SALGAI

■ **Txakurkumeak.** Braco Alemaniarrak arrazako txakurkumeak salgai. Deitu: 943 67 25 76.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Tolosa.** Voith-Gorostidin etxebizitza libreak erosi dituztenek bilera dute Kultur Etxean 20:30ean.

■ **Tolosa.** Ostegunean, Topic inaurguratu baino lehen, Txontxongilo taldeak *Altzor bat patrikan* obra eskainiko du bertan 18:00etan. Sarrera doan da, baina erreserbatu egin behar da CIT-Teen (943 650414). Halaber, Topic-en inaurgurazioa dela eta, ostiralean eta larunbatean txontxongilo eta makilaje tailerrak izango dira, doan. Izen-ematea, CITen (943 650414).

■ **Tolosa.** Zinema txiroaren jaialdia: DVD proiektzioak, Mugarik Gabe erakundeak antolatuta eguneroko Leidor aretoan 20:00etan.

Kirolak

■ **Tolosa.** Erriora goizeko irteera antolatuta du Oargi mendi elkarteak larunbaterako, 9etan abiatuz. Izen-emateko Alar-i deitu (667 600917).

■ **Villabona.** Fidel Mendiaren *Caukaso* proiektzioa Gurea aretoan 20:00etan, Aizkardiren 26. Mendi Astean.

Hitzaldiak

■ **Tolosa.** Ongizate pertsonalerako gomendioak: autoestima hitzaldia Kultur Etxean 17:00etan.

■ **Tolosa.** Elisabet Arrieta 18:30etik 20:00etara udaletxeko batzar aretoan ariko da partaide-tza jardunaldian. Soziologian doktoratua EHU'n eta herri partaidea-tzan aditua da.

Ikastaroak.

■ **Tolosaldea.** Tolosaldeko Mankomunitateak etxeko konpostaje ikastaroa antolatuta du hilaren 24ean eta 30ean, arratsaldean. Izen-ematea, 943 676216 telefono zenbakian.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.

■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

» IRRATIA

Txolarre irratia

11:00-13:30. Tolosaldeko Ahotsa: Albistegia, Magazina, Lehiaketa eta disko eskainiak.

13:30-14:00. Albistegia - Info 7. **14:00-**

15:00. Tolosaldeko Albistegia. **17:00-17:45.**

Musika nobedadeak **17:45-18:00.** Argia as-tekaria **18:00-20:00.** Tolosaldeko Ahotsa (errepikapena). **20:00-20:30.** Albistegia, Info 7. **21:00-23:00.** Bide okerretik.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanena eta iritzien erantzunik.



Bartzelonaren 3 garaikurrak Tolosan

TOLOSA ● Atzo goizean Tolosako Iruña kafetegian ikusgai egon ziren Bartzelona futbol taldean aurreko denboraldian irabazitako hiru garaikurren erreplikak. Europako Txapeldunen Ligakoa, Espainiako Ligakoa eta Espainiako Erregearen Kopakoa, hain zuzen ere. Gasteiztik atzo ekarri zituzten Tolosako Bartzelonaren aldeko peñakoek, eta atzo bertan Zestoara eramango zituzten. I. TERRADILLOS

A Agurrak



Urte askoan!
Inaxi Agirrezabala (Ugarte).

Gaur 87 urte.

Zorionak etxekoan partetik.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa



harpidedun izateak badu saria

① Hotel Gaua

Trintxera nekazal ostatuko suitean **gaua eta gosaria** bi laguntzatzat

Tolosa - Azpeitia errepidea, 10.Km-a
20737 - ERREZIL
943 681 206 - 943 681 208
www.trintxera.com



② Otordua

Baliarraingo **Zartagi** jatetxean bi laguntzako otordua

Erretore etxea - Herriko plaza z/g
20259 Baliarrain
943 163 076



③ Titirijai 09 bonuak

Titirijai 09 txontxongilo emanaldietarako helduen eta haurren **bonu bana**



④ Diskoa

Ken Zazpi taldearen "**Ken Zazpi urte zuzenean**" 2 CD-DVD, bi harpidedunentzatzat

